

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: [LENGUA Y LITERATURA](#)

II

Irakaslea/Profesor/a: **Iratxe Serna Bermejo**

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

"Literatura unibertsala" irakasgaiak mendebaldeko literatura unibertsalaren aldi, mugimendu eta egile nagusiei buruzko oinarritzko ezagutzak eskaini nahi ditu. Hartutako ikuspegia, funtsean, kronologikoa da; horregatik, irakasgaiaren programa honako aldi hauen arabera egituratzen da: Erdi Aroa, Errenazimentua, Modernitatea, Garaikidetasuna. Identifikatutako segmentu kronologiko bakoitzaren barruan, modu paradigmaticoan aztertzen dira garaiko obra garrantzitsu eta esanguratsuak eta aztergai den korrontea. Irakasgaiak, gainera, arreta berezia eskaintzen dio garai batzuen eta besteen arteko loturei, eta, bereziki, tradizioako literaturak egungo munduko literaturan uzten duen aztarnari.

Irakasgaiak aukera ematen du partekatutako erreferentzien mapa bat eskuratzeko: ondare unibertsaleko lanak eta egileak; mugimendu estetikoak; generoak eta azpigeneroak; historian zehar errepikatzen diren gaiak, topikoak, arketipoak, sinboloak, etab. Literatura unibertsaleko klasikoaren irakurketa partekatu eta autonomoak, horien inguruan argudiatutako deliberamenduak, ikerketa prozesuen garapenak edo klasikoak bereganatzeko eta birsortzeko jarduerak oinarritzko gaitasunen garapenean parte hartzen dute, modu horretan.

Gaitasunak/Competencias

1. Literatura unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea, generoa osatzen duten elementuen barne erlazioak eta horiek obretan dituzten funtzioak kontuan hartuta, baita lanek beren ekoizpen testuinguruarekin eta kultura tradizioan duten inskripzioarekin dituzten kanpo erlazioak ere, literaturaz gozatzeko aukerak areagotzeko eta sormen literarioa eta artistikoa suspertzeko.

2. Literatura unibertsaleko klasikoak modu autonomoan irakurtzea, gozamenerako eta ezagutzarako iturri gisa, eta irakurketako esperientziak partekatzea, norberaren irakurketa nortasuna eraikitzeke eta irakurketaren alderdi sozialaz gozatzeko.

3. Garai, genero eta hizkuntza artistiko desberdinetako lanen arteko loturak ezartzea, eta horien ekoizpen testuinguruen eta literaturaren eta gizartearen arteko erlazioaren araberrako antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea, kulturaren historian zehar gai unibertsalak eta errepikatzen diren bide formalak daudela egiaztatzeke.

4. Ondare unibertsaleko mugimendu estetiko nagusien eta literatura lan garrantzitsuenetako batzuen ezaugarriak ezagututa, partekatutako erreferentzien esparrua finkatzea, esperientzia literario eta kultural pertsonalak inskribatzeko mapa kulturala osatzeko.

Edukiak/Contenidos

1. Literaturaren sorrera.
2. Literatura klasikoa.
3. Erdi Aroko literatura.
4. Errenazimentua eta Klasizismoa.
5. Argien Mendea.
6. Erromantizismoa.
7. Errealismoa eta Naturalismoa.
8. Bigarren Mundu Gerraren osteko korrante narratiboak.
9. Antzerkia XIX. mendearen amaieratik.

Metodologia/ Metodología

Saioetan jarraituko den metodologia "eskola magistralen" eta "eskola praktikoen" arteko konbinazio bat izango da; lehenengoetan, irakasleak irakasgaiaren teoria azalduko du eta, bigarrengoetan, ikasleek praktikan jarri ahal izango dute ikasitako teoria (obrak irakurriz, horiek aztertuz, etab.).

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Ebaluazio sistema honetan oinarrituko da: eskoletara joatea eta saioetan parte hartzea.

Bibliografia/Bibliografía

Irakurketak:

- Biblia.
- Medea.
- Mila gau eta bat gehiago.
- Petrarkaren sonetoak.
- Danteren Jainkotiar komedia.
- Boccaccioaren Dekameron.
- Shakespeareren Hamlet.
- Molièreren Gaixo imajinarioa.
- Voltaireren Kandido.
- Defoeren Robinson Crusoe.
- Swiften Gulliverren bidaiak.
- Edgar Allan Poeren Belea.
- Irvingen Alhambrako ipuinak.
- Polidoriren Banpiroa.
- Mary Shelleyren Frankenstein.
- Flauberten Madame Bovary.
- Dickens Oliver Twisten abenturak.
- Oscar Wilderen Dorian Grayren erretratua.
- Joyceren Ulises.
- Woolfen Mrs. Dalloway.
- Kafkaren Metamorfosia.
- Millerren Salengo sorginak.
- Ionescoren Abeslari burusoila.